

## GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA, ADMINISTRACIONES  
PÚBLICAS E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES  
INSTITUCIONALES

EDUCACION

SALUD

POLÍTICA SOCIAL, IGUALDAD,  
DEPORTE Y JUVENTUDDESARROLLO RURAL, INDUSTRIA,  
EMPLEO Y MEDIO AMBIENTE

FOMENTO Y VIVIENDA


SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

## Asturiasko eta Vianako printze-printzesak 2012ko Kulturaren “Vianako Printzea” Sariaren banaketaren buru izan dira

*Antonio Lópezi saria emateko ekitaldia monasterioko Ostatuko patioan  
egin da*

Miércoles, 06 de junio de 2012

Asturiasko eta Vianako printze-printzesa Errege Gorentasunak Nafarroako Gobernuak emandako 2012ko Kulturaren "Vianako Printzea" Sariaren banaketa-ekitaldiaren buru izan dira gaur goizean, Leireko San Salvador monasterioan. Aurtengo edizioan Antonio López izan da saritua. Ekitaldian izan da ere, Hezkuntza, Kultura eta Kiroletako ministro José Ignacio Wert.



Antonio López printze-printzesaren eskutik jasotako saria erakusten.

Ekitaldia 11:30ean hasi da Ostatuko Patioan, Felipe jauna eta Letizia andrea buru direla, eta bertan izan dira saritua bera, Nafarroako Lehendakaria, Gobernuo kideak, Foru Komunitateko agintari politiko eta instituzional nagusiak, Nafarroako Kultura Kontseiluko kideak eta Antonio Lópezen senide eta lagunak.

Ekitaldiaren burutza edo presidentzia abade-elizako iparraldeko horman jarri da, Vianako Printzerriko zutoihal heraldikoarekin apaindua. Felipe jauna eta Letizia andrea beren ohorezko aulkien ondora heldu direnean, Nafarroako Tronpetak eta Tinbalen Bandak Espainiako Ereserki Nazionala eta Nafarroako Ereserki interpretatu dituzte.

Jarraian, Barcina Lehendakariak hitzaldi bat eman du. Lehendakariak, printze-printzesaren presentzia eskertu ondoren, Antonio López-en irudi artistikoa eta gizatiarra goraiatu ditu, eta hark Nafarroarekin duen lotura azpimarratu: lehenik eta behin Tuterako hirian, eta azken urteotan udan Nafarroako Unibertsitatean Figurazioari buruzko Pintura Tailer batean.

Barcina Lehendakariak bere diskurtsoan printze-printzesari deskribapen bat ere egin die "Nafarroa bizitze ari den egoeraren inguruan, eta zer ekimen sustatzen ari garen erritmo sozial eta ekonomikoa errekupezko". Horri dagokionez, aipatu du krisiaren "gordintasun"-aren aurka "herritar gehienek ordezkartzaren borondateak batuz borrokatzen dugula, zilegizkoak diren ezberdintasun ideologiko edo taktikoen gainetik

jardunez, herstura handieneko neurri gogorak aplikatuz, eta aldi berean ekimen berritzaileak bultzatuz etorkizun handiagoa duten sektoreetan –ekonomia berdea, osasunaren ekonomia eta gure enpresen talentu, ekintzailtza, ikerketa eta nazioartekotzea".

Jarraian, Sergi Moreno-Lasalle-k zuzendutako Iruñeko Ahots Baxuko Abesbatzak Johan G.E. Sthele-ren "Las ruinas del monasterio" (Monasterioko hondakinak") konposizioa interpretatu du.

Musika-emanaldi horren ostean, Nafarroako Gobernuo Lehendakariatzako zuzendari nagusi Marta Pernaut-ek Antonio López-i saria ematen dion foru-dekretua irakurri du atriletik, eta saritua oholtzara igo da. Felipe jaunak sariaren diploma eman dio eta, haren ondoren, sarituak esker oneko hitz batzuk esan ditu.

Esker oneko hitz horiek Kulturako Batzordearentzat (hark proposatu zuen) nahiz Gobernuo Lehendakariarentzat izan ditu, eta batez ere printze-printzesarentzat; hala, gogora ekarri du aurrez bi sari eman zizkiotela : 1985ean, Oviedon, Arteetako Asturiasko Printzea Saria, eta 2006an, Prado museoan, Pinturako Velazquez Saria. Agerraldia mantxatar bere izaera eta Nafarroarekiko duen lotura agerian utziz amaitu du, eta bere poza agertuz "besteentzako, zuentzako onuragarria naizela sentitzen dudalako, eta sari hori Nafarroako lurralde honi gehiago lotzen nauen arrazoi bat gehiago da".

Jarraian, Ahots Baxuko Abesbatzak Janko Milovic-en "Tierra de hombres" ("Gizonen lurra") interpretatu du.

### **Felipe jaunaren hitzak**

Azkenik, Felipe jaunak hitz egin du, eta bere agerraldiari hasiera eman dio duela 500 urte izan zen prozesu konplexua oroitzuz "Nafarroa formalki eta behin betikoz Monarkia Hispaniarreko lurraldeetan sartzeko, bere foruei eta Erreinuaren izaerari eutsiz. Era horretan, Nafarroak antzinatik izan zuen helburu hispaniarrarekin jarraitu zuen". Testuinguru horretan aitortu du "lurralde honek historikoki duen bokazio sakona Espainiako integrazio eta batasunaren alde egiteko, eta bertako talde-proiektuekin, bere berezitasunetik nahiz identitate sendotik, beti konpromiso irmoa azaldu izan du".

Ondoren, Printzeak Antonio López goraiatu du, eta hark Nafarroarekin duen lotura gogoratuz amaitu du. Testuinguru horretan, Felipe jaunak nabarmendu du guztion artean sustatu behar ditugula, "bizi garen garai zailetan", ideiak eta ekimenak, jarduera berrien proiektuak. "Eguneroko errealitatea gogorra bada ere –esan du–, lana topatzen ez duen pertsona-kopuru handiaren mina sentitzen badugu ere, ezin dugu gure ahalmenean konfiantzarik galdu behar. Gure gizarteak duen sormen, talentu, esfortzu eta ekimeneko ahalean sendo sinetsi behar dugu; bereziki belaunaldi gazteenak, ondoen prestatuta daudenak baitira aurrean ditugun erronka berriei aurre egiteko".

Amaitu du adieraziz "ez dela ezberdintasunetan eta norberekerietan erortzeko garaia. Ardura, sakrifizio eta jarrera eskuzabalen garaiak dira, elkarrekin itxaropenez bidea egiten lagunduko digutenak, konbentzitura jartzen ditugun helburuak lor ditzakegula eta bizi dugun egoera hobetu dezakegula, berandu baino lehen".

Ekitaldia Raimundo Lanas-en "Navarra mía" ("Nire Nafarroa") zortzikoaren musika-emanaldiarekin amaitu da.

Ekitaldia amaitzean, Felipe jauna eta Letizia andrea, agintari nagusien laguntzarekin, Ostatuko Patioa utzi dute. Irten aurretik, Iruñeko Ahots Baxuko Abesbatzako zuzendaria agurtu dute, eta absideen plazatik monasterioko sarrera nagusira abiatu dira.

(Banaketa-ekitaldia Foru Komunitate guztian ikusi ahal izan da zuzenean Navarra Televisión-ekin



Barcina Lehendakariak egindako agerraldiaren une bat.

egindako emisioari esker).

## Galería de fotos



Felipe Printzearen agerraldia.



Antonio López-en agerraldia.



Errege Gorentasunak Antonio López-en senitarteko eta lagunekin.



Bertaratutakoak Felipe Printzearen hitzaldia entzuten.